

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala**

Herriko jaietan eta jai tradizionaletan erabilera publikoko lurretan jartzen diren kaleko salmenta-postuen, barraken, salmenta-etxolen, txosnen, ikuskizunen edo atrakzioen Tasa ezartzeko behin betiko onarpena.

Udal-jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik tasa arautzen duen Zerga Ordenantzako «Herriko jaietan eta jai tradizionaletan erabilera publikoko lursailean jartzen diren kaleko salmenta-postuen, barraken, salmenta-etxolen, txosnen, ikuskizunen edo atrakzioen tasa» XII. epigrafearen ezarpena behin-behinean onartzeko erabakia jendaurrean ikusgai jartzeko epea igaro ondoren inolako erreklamaziorik eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betiko onartzen da Udalbatzak 2020ko otsailaren 27an egindako bileran hartu zuen erabakiaren bidez.

Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 18ko 9/2005 Foru Arauan xedatutakoa betetzeko asmoz, ezarpen hori argitaratzen da:

XII epigrafea.— Herriko jaietan eta jai tradizionaletan erabilera publikoko lursailean jartzen diren kaleko salmenta-postuen, barraken, salmenta-etxolen, txosnen, ikuskizunen edo atrakzioen tasa

Instalazio motak:

- A) Konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, ontzitxoak edo antzekoak saltzen edo erakusten dituen postu bakoitzeko; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; fruta, barazki, landare, lore eta haziak eta beste elikagai batzuk, naturalak edo landuak, hegaztiak, arrautzak eta ehiza, bai eta mertzeriako gaiak, ehunak, jantziak, imitaziozko bitxiak, kinkalla, burdingintza, koadroak, baratiarritza saltzeko edo erakusteko postu bakoitzeko ere.

Kobratu beharreko tasa: 1,50 euro metro koadroko/eguneko.

Aurretik jasotako tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Pertsona fisikoek, elkarteek edo kultura-, kirol- edo ongintza-taldeek jartzen dituzten lanpostuak, baldin eta haien helburua interes publikoa edo soziala bada.
- b) Urduñako Udalak, erakunde autonomoek eta haren mendeko sozietate publikoek antolatutako erakusketen edo azoken ondorioz jartzen diren postuak.
- B) Urduñako Udalak, erakunde autonomoek eta haren mendeko sozietate publikoek antolatutako erakusketen edo azoken ondorioz jartzen diren postuak.

— 800 euroko tasa bakarria ordainduko da jaiegun osoan okupatzeagatik.

Aurreko paragrafoan deskribatutako lankidetza-hitzarmena sinatzea ahalbide-tzen duen akordiorik lortu ezin bada, 0,75 € ordainduko dira okupatutako azalera-ko egun eta metro koadro bakoitzeko, eguneko 30 €-ko gutxieneko kuotarekin, eta bi kopuruetatik handiena gailenduko da instalatutako elementu bakoitzeko (barraka, etxola, ikuskizuna eta atrakzioa).

- C) Txosnak

Urduñako Udalak onartutako jai-programa ofizial eta tradizionalen inguruan interes publiko edo sozialeko helburua duten kultura-, kirol- edo ongintza-elkarte edo taldeek txosnak jartzeagatik ez da jabari publikoa okupatzeagatikotasarik ordainduko, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak fidantza gisa urtero ezarritako zenbateko bat kobratzea. Zenbateko hori itzuli egingo da dagokion fidantzan ezarritako baldintza guztiak betetzen badira. Ordenantza.



Ordenantza honen ezarpen jartzeko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko eta oso-osorik argitaratu osteko hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta aldatzea edo indarrik gabe uztea erabaki arte jarraituko du indarrean.

Urduñan, 2020ko maiatzaren 13an.—Alkatea, Itziar Biguri Ugarte